

Ingeniaritza Osasunaren sektorean

2013/05/29

Energiaren eta osasunaren sektoreak sektore estrategikotzat identifikatu dira Bai Europan bai mundu mailan. Gure enpresa sarearen eraldaketa lortzeko sektore horietan posizionamendu ona lortu behar da, hazten jarraituko dutela eta balio erantsi handia izango dutela aurreikusten baita. Eraldaketa horrekin batera beharrezkoa da sektore horietako profesionalak prest egotea. Gure enpresen aukera eta behar horiekin bat eginda, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak hiru titulazio berrizailerekin ekingo dio 2013-2014 ikasturteari, ingeniartzaren arloan kokatuta, eta arlo horietan espezialistak sartzeko beharrezkin. Hiru ingeniartzak dira, Biomedikoa, Energia eta Industria Prozesuen Ekoteknologia, hurrenez hurren, orain arte unibertsitateak ingeniartzetan zuen prestakuntza eskaintzari –guztira sei– gehitzen zaizkionak.

Beraz, merkatuaren eta enpresen beharrei erantzunez, Goi Eskola Politeknikoa hazi egiten da ikuspegi geografikotik zein titulazioei dagokienetik, ikasleen, enpresen eta gizartearen beharrak hobeto ase ahal izateko.

Ingeniaritza biomedikoa

Ingeniaritza berri honek etorkizunean hazkunde handia izatea espero da, Arrasateko campusean emango da, eta Mondragon Healthekin batera landutako proiektu bati dagokio; ekimenak osasunaren arloan murgiltzea esan nahi du, ingeniartzaren prisma, osasunaren arloan planteatzen diren arazoak konpontzeko prestatuta egongo diren pertsonekin.

2013ko irailean ematen hasiko den gradua da, formatu presentziala izango duena. Helburua da ingeniartzaren jakituria eremu biomedikora eta osasunarenera eramatea, ingeniartzaren ezagutzak eta trebetasunak osasunaren zientziekin fusionatzeko, teknologiak, produktuak, ekipamenduak, prozesuak eta zerbitzuak diseinatu eta garatzeko eta, horrenbestez, osasunaren zientzien arloan langile kualifikatuei dagokienez dauden hutsuneak betetzeko.

Ondorioz, ingeniartzak biomedikoan ekipamendu, produktu eta zerbitzu biomedikoak diseinatu, kudeatu eta mantenduko dira, aberastasun soziala sortzen eragin handia duen esparru bateko aurrerapen teknologikoei erantzuteko, betiere pertsonen osasunaren kalitatea hobetze aldera.

Biomedikuntza ikerketa

Mondragon Unibertsitateko ingeniarien prestakuntza bat dator betik ezagutza arlo beretan egiten den ikerketa jarduerarekin. Jarduera honen buru irakasle eta ikertzaileak dira ikasle eta doktoregaien laguntzarekin. Mondragon Unibertsitatean Ikerketa jarduera hau enpresari zuzenduta dago argi eta garbi. Enpresa aliatuek beraien lehiakortasuna hobetzeko beharko duten ezagutza sortzea eta pertsonak prestatzea du helburu. Era honetan bakarrik gauzatu ditzake unibertsitateak bere gain dituen hiru betebeharrak, ezagutzaren triangela osatzen dutenak: hezkuntza, ikerketa eta transferentzia.

MUko profesionalek hainbat urte daramatzate beraien jarduerak eta gaitasunak OSASUN sektorerantz zuzentzen. Honela, MUK ikerketa lerrokatu egin du administrazio publikoek eta inguruko eragile enpresarialek markatzen duten lehentasunekin. Jakina denez, sortzen den ezagutzak hezkuntzaren kalitatean eragina du eta beraz, estrategia honek, epe ertainera, ezagutza eta pertsona prestatuak izateko balio beharko luke, hauei esker, euskal enpresa industrialek beraien jarduerak hain exigentea den OSASUN sektorerantz zuzendu dezaten.



2013 Ingeniaritza Osasunaren ekitaldia